

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3404

EBAZPENA, 2015eko uztailaren 23koa, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita honako hau: Valderejo (ES2110001) eta Sobrón (ES2110002) kontserbazio bereziko eremu (KBE) izendatzea, eta horiek eta Valderejo-Arcenako Mendilerroa (ES0000245) hegaztientzako babes bereziko eremua (BBE) kontserbatzeko helburu eta neurriak onartzea, Arabako lurralde historikoan.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko uztailaren 21eko Aginduaren bitartez, hau erabaki da: Valderejo (ES2110001) eta Sobrón (ES2110002) kontserbazio bereziko eremu (KBE) izendatzea, eta horiek eta Valderejo-Arcenako Mendilerroa (ES0000245) Hegaztientzako BBEda kontserbatzeko helburu eta neurriak onartzea, Arabako lurralde historikoan.

Xedapen Orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8.1 artikularekin eta apirilaren 15eko 1/2004 Legegintza Dekretuaz onartutako Natura Babesteari buruzko testu bategineko 22.2 artikularekin bat etorruta, administrazioen eta ingurumena babesteko helburu duten irabazte-asmorik gabeko erakundeentzuzunaldi-izapideak egin behar dira, eta jendaurrean jarri eremuen izendapenak, lekuen kartografia mugapenarekin batera, izendapenak justifikatzen dituzten batasunaren intereseko habitat motak eta flora eta fauna espezieak, haien kontserbazio-egoeraren balorazioa, lekuak kontserbatzeko helburuak eta arauak, eta jarraipen programak.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuko 6.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorruta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Jendaurrean jartzea honako izendapen hau: Valderejo (ES2110001) eta Sobrón (ES2110002) kontserbazio bereziko eremu (KBE) izendatzea, horiek eta Valderejo-Arcenako Mendilerroa (ES0000245) Hegaztientzako BBEda kontserbatzeko helburu eta neurriak onartzea, Arabako lurralde historikoan. Jendaurrean jarriko da EHAAren iragarki hau argitaratu eta biharamunetik 2015eko urriaren 1era arte; epe horretan, egoki irizten diren alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte interesdunek.

Bigarrena.— Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, epe horretan dokumentazioa ikusgai izango da bai egoitza elektronikoan: www.euskadi.eus/natura2000, bai EAEdo Administrazio Orokorren Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzan, herritarrak atenditzeko ordutegian, helbide honetan:

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
Eusko Jaurlaritza.
Donostia kalea 1.
01010 Vitoria-Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 23a.

Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendaria,
AMAIA BARREDO MARTÍN.